

BEZEROEKIN HARREMANAK

Gure bezeroekin harreman ona izatea, oso garrantzitsua da guretzako. Gure helburua, bezeroen ongizatea eta beharrak asetzea da. Horregatik, Web orrialde bat sortuko dugu, jendeak erosotasuna izateko. Web orrialdea www.palofilm.eus izango da. Web gune hau izango da leku bakarra non gure produktua erosi ahal den. Hau da, palofilm-a bakarrik interneten bidez erosi ahalko da.

Hasieran gure produktuari buruz jakinarazteko saiatuko gara Arabako institutu gehienetan hitzaldi batzuk egitea, bezeroen harremana hobetzeko. Hitzaldiak bost ekintzaileek egingo ditugu, bakoitza eskola zehatz batzuetara joango gara. Horrela, eskola gehiagotara gure produktuaren informazioa iritsiko zaie. Egia da, Arabako eskola guztietara ezin izango garela joan, baina, joaten ez garen eskoletara gure produktuari buruzko kartelak bidaliko ditugu. Gure herrian, hau da, Agurainen, izango da gure lehengo txarla. Honekin nahi duguna da Arabako populazioak gure produktua erostea.

Baita ere, kartelak ipiniko ditugu Agurainetatik. Era berean, gaur egun sare sozialak oso aurreratuak daudenez, eta mundu guztiak erabiltzen dutenez, kontu bat sortuko dugu eta kontu horretan informazio guztia igoko dugu baita ere. Gure instagram-eko kontua honako hau da; @palofilm. Aldiz, Facebook-eko kontuaren izena honako hau da; @Agurainpalofilm. Lehen aipatu dugun moduan ere webgune bat izango dugu, www.palofilm.eus izeneko. Webgune honetan produktuak eskuratzeko modu bakarra izanez gain, produktuaren informazioa ere aurkitu ditzakegu.

Hasieran, jendea gure produktua erosten animatzeko deskontuak egingo ditugu gure produktuan. Webgunean aurkitu ahalko dute bonuak, deskontuak, promozioak..etab. Gainera Gabonetan deskontu bereziak aterako ditugu. Gure helburua da data berezietan eta ez hain berezietan gure produktua erostea.